

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak, Euskadik eta Pirinio Atlantikoez heliportuen mugaz haraindiko sare bat sortzeko asmoa dute larrialdietarako

Beaumont kontseilariak Babes Zibileko Zerbitzua buru den proiektu honen plangintza egiteko bileran parte hartu du gaur goizean

Ostirala, 2017.eko maiatzak 12

M^a José Beaumontek, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak, HeliNET mugaz haraindiko lankidetzaproiektua koordinatzeko eta plangintza egiteko lehen bileran parte hartu du gaur goizean. Horren bidez, Nafarroak, Euskadik eta Pirinio Atlantikoez heliportuen eta helikopteroetarako eremuen sare bat garatzeko asmoa dute, isolatuta edo urrun dauden Pirinioetako herritan egon daitezkeen larrialdiei erantzuteko, Espainiako eta Frantziako Estaturen arteko administrazio-mugak kontuan hartu gabe.



Beaumont kontseilaria HeliNET proiektuko kideak diren erakundeetako ordezkariekin egindako bileran.

Horrela, aireontzien erabilera sustatuko da, esaterako, larrialdi medikoak, erreskateak edo natura-hondamenduak gertatzen badira. Beaumont kontseilariak gogoratu du egoera kritikoetan helikopteroak erabiltzea "funtsezkoa" dela ohiko komunikazio-sareetatik edo sarbide zaila duten lekuetatik urrun dauden mendiko herriei erantzuteko, "edozein direla larrialdi-zerbitzuen eta babes zibilaren jarduera baldintzatzen duten administrazio-mugak".

Era berean, proiektu honekin, mugaz haraindiko lankidetzasare bat sortuko litzateke, bai logistikoa bai operatiboa, hiru lurraldeetako gobernu, foru aldundi, mankomunitate eta tokiko erakundeen babes zibileko, osasun eta larrialdi zerbitzuen artean, elkarrekin aritzeko eta laguntza emateko.

HeliNET proiektua Europako Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren uneko deialdian proposatu da, eta gaur egun, hautaketaren bigarren fasean dago, bere kategorian aurkeztutako hogeitabat proiektuen artean bigarren kalifikaziorik onena lortu duelako.

Aurreikusita dago HeliNET proiektuak hiru urteko iraupena izatea, 2017ko uztailetik 2020ko ekainera arte, eta 2,5 milioi euroko aurrekontua

du. Parte hartzen duten hiru lurraldeetako administrazioek ordainduko dute, eta % 65eko finantzazioa izan lezake Europan. Proiektuaren burua Foru Gobernuako Babes Zibileko Zerbitzua da, eta beste hauek ere parte hartzen dute: Nasuvinsa, Nafarroako Gobernuko lurzoruko enpresa publikoa; Eusko Jaurlaritzako Osakidetzako Larrialdi Zerbitzua; Berrikuntza, Ikerketa eta Osasun Fundazioa eta Baiona, Pau eta Pirinio Atlantikoetako ospitaleak (Frantzia).

GIS sistemak, guztien plataforma teknologikoak eta simulakroak

Proiektu honen barruan, Nasuvinsako langileek hiru lurraldeetako zenbait lekutan helikopteroetarako eremuak jartzeko baldintzak eta herrien katalogoak ezarriko dituzte, geoposizionamendu-sistemen eta informazio geografikoko tresnen (GIS) bidez.

Horrez gain, guztientzako plataforma teknologiko bat ere garatuko dute, 112ko koordinazio operatiboko zentroek denbora errealean jakin dezaten non dauden larrialdi-zerbitzuen esku-hartzei erantzuteko baliabideak, proiektuan parte hartzen duen edozein lurraldetan erantzuteko denbora ahalik eta txikiena izan dadin.

HeliNET proiektuak herritarrentzako kontzientziazio eta prestakuntza ekintzak elkarrekin ere egiteko asmoa du; baita ariketa eta simulakroak ere, babes zibileko eta larrialdi zerbitzuen sare horrek nola lan egiten duen aztertzeko.